

# LEIOAKO SANTA AGEDA KANTUEN XXXI. LEHIAKETA

Leioako Agate Deuna eguneko XXXI. Kanta Lehiaketa deitu du Leioako Udalak, honako OINARRI hauek izango dituen:

Agate Deuneko lehiaketa udalerriko auzo desberdinetan zehar egingo da, **2020ko otsailaren 4an**, asteartea.

Bi **kategoria** dago:

- A. 16 urte arte (goiz eta arratsalde).
- B. 16 urtetik aurrera (arratsalde).

**Kantatzeko bost gune** ezarri dira abesbatza bakoitzak ondoen datorkiona aukera dezan:

**A Gunea: Lamiako.**

Nagusien Etxea, Txopoeta, Txorierrri eta Langileria.

**B Gunea: Pinueta-Ibaiondo.**

Pinueta Kulturgunea, Cervantes Plaza, Beiraren putz-egilearen estatuaren ingurunea eta Ibaiondo.

**C Gunea: Erdigunea.**

Ikea Plaza, San Juan Auzoa, Euskal Etxeen Plaza, Jose Ramon Aketxe Plaza eta Errekalde.

**D Gunea: San Bartolome/Basaez - Artatzagana.**

Artatza k., Negurigane, Baseliza eta Artatzagana Plaza.

**E Gunea: Kandelazubieta - Udondo**

Kandelazubieta k. eta Udondo Boulebarra.

Abesbatzak gunea hautatu ondoren, gune horren barruan kantatu beharko du, antolakuntzak ezarritako lekuetan.

Leku horietaz gain, abesbatza bakoitzak beste leku batzuetan ere abes dezake, bere gunearen barruan edo gunetik kanpo.

Abesbatzak ahotsez eta musika-tresnez osatuta egon daitezke, eta gutxienez, 12 pertsonako taldeak izan behar dute.

Abesbatzei leku bakoitzean abesteko ordua esleituko zaie.

Epaimahaia musika-arloko profesionalak eta tradizioko eta abesbatzako musikarekin lotura duten pertsonak osatuko dute.

Epaimahaiak talde parte-hartzaile bakoitzari esleitutako guneko jarduera behatuko du eta bere erabakia adieraziko du, ondorengoak bezalako aspektuak kontuan hartuta eta balioetsita: ahotsak ondo enpastatuta egotea, perkusioaren erritmoa, ahoskatzea, bakarlariak egotea, ahotsen ñabardurak, taldeak ematen duen azken itxura, jantziak, parte-hartzea eta berdintasuna (parte-hartzaileen kopurua eta sexu eta adin ezberdinetakoak izatea), apaingarriak eta girotea.

Hauek izango dira **sariak** kategoria bakoitzean:

- 1 - 400 euro, garaikurra eta diploma.
- 2 - 300 euro, garaikurra eta diploma.
- 3 - 200 euro, garaikurra eta diploma.

Oinarri hauetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten abesbatzek 60 euroko dieta jasoko dute.

Izena emateko epea 2020ko urtarrilaren 28an bukatutuko da eta ondorengo lekuetan egin behar da:

- Kultur Leioaren abegitokian, aurrez aurre.  
Jose Ramon Aketxe Plaza, 11, astelehenetik ostiralera,  
9:00-20:00 ordutegiaren barruan.
- Posta elektronikoaren bidez: [infokultur@leioa.net](mailto:infokultur@leioa.net)
- Telefonoz, 946072570 zenbakira deituta.

Izena emateko momentuan honako datuak adierazi behar dira:

- Taldearen izena.
- Taldearen arduradunaren izena, abizenak NA eta harremanetarako telefono zenbakia eta posta elektronikoa.

Dirua eskatzea talde bakoitzaren ardurapean eta askatasunpean geratuko da.

**SARI BANAKETA: otsailaren 8, larunbata, 12:00etan.** Kultur Leioako Erakusketa Aretoan.

